

...eta kित्तto!

1989ko Ekaina / 6. Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

«Osasuna gizarte guztiaren ardura da: Gizabanako eta familiarik hasita, administrazio publiko guztiarentzat. Osasun Zentru egokiak egiteaz gain, ongizate, ingurugiro, eta enplegu politikak ere egin behar dira. Azken batean, osasuna oso lotuta dago pobreziaren aurkako borrokarekin».



Gure osasuna bizitzaren kalitateari lotuta dago

Mikel Mier medikua eibartarron osasunaren gainean berbetan

Sendagile honek adierazi digunez, Eibar eta bere inguruetan bizio ugari dago, nahiz eta azken boladan askok kirolari ekin dion. Alde batetik elikadura ez da bat ere egokia. Bestalde, alkoholaren arazoa dago: gauez kopak hartzea edo arratsaldeko poteoa gauza normaltzat jotzen dira, ere gehiago, ondo ikusita daude, eta honek Osasunean eragin negatiboa dauka, arazo epatikoak, digestio arazoak, oroimenezkoak e.a. sortuz.

Tabakoari dagokienez, honen kontsumoa murriztu egin da, agian Osakidetza zuzentzen diharduen kanpainen ondorioz.

Bestalde, inguru honetan sarritan jotzen da sendagilearengana, eta ez bakarrik oso gaizki aurkitzen garenean, baizik eta alde aurretik ere; adibidez, 40 urtetik gorakoak askotan joaten dira tentsioa hartzera.

Gaiso arruntak eta grabeak

Mikel Mierrek esan digunez, gaiso arruntak arnas-aparatu eta aparatu digestiboak dira, hauek aldi berean traszendentzia gutxienetakoak izaten direlarik. Heriotz kausa haundienak aztertuz, honako zerrenda egingo genuke:

- Lehendabizi aparatu zirkulatorioari dagozkion gaisoak: infartoak, trombosiak, enboliak...
- Bigarrenik, tumoreak legozke.
- Hirugarrenetik, aparatu digestiboaren gaisoak.
- Eta azkenik traumatismo eta pozoindurak, hauek biztanleri gaztean, zerrendaren lehenengo lekuan doazelarik.

Gaur eguneko bizitza itxaropena 71,2 urtekoa da gizonezkoetan, eta 78 urtekoa emakumezkoetan.

Bestalde, Eibar izugarri zahartzen ari da, oso ume gutxi jaiotzen da, kontu horretan Ermu eta Mutrikun askoz hobeto daudelarik. Biztanlegoaren %10,4 65 urtetik gorakoa da, eta espero da 2000 urterako % 18ra helzte, honek dakartzan arazo sozial eta sanitarioekin.

Aurredeia eta gure hortzak

Mikel Mier, Anbulatorioan funtzionatzen duen aurredeia edo «cita previa» sistemari buruz ere mintzatu zen: «Neurri egoki bat izan da; orain pertsona ez da zenbaki bat, eta gainera ez ditugu ikusten lehengo aglomerazioak. Nire ustez, orohar, jendea pozik dago sistema honekin. Egia da Optanmologia edo-ta traumatologia bezalako espezialitateetan itxaroteko-zerrenda handiegia dela, baina egia da ere eskaira oso handia del eta espezialidade bakoitzeko espezialista bat besterik ez dagoela»



Azkenik, Mier medikuak Osakidetza hertz-garbitasunari buruz egiten ari den kanpaina azaldu zigun, honen errekurtso ekonomiko eta giza-errekurtso ugari inbertitzen ari delarik. Kanpaina hau umei zuzenduta dago, eta honen halburua haurrek kariesa ez ezagutzea litzateke. Helburu hau, Mikel Mierrek esan zuenez, lortu daiteke, ezaguna bait da nola sortzen eta gaitzurreratzten, prebenitzen, den gaitz hau.

• Eibarren eta bere inguruetan bizio ugari dago

• Gaiso arruntak arnas-aparatu eta aparatu digestiboak dira

• Eibar izugarri zahartzen ari da, oso ume gutxi jaiotzen da

• Aurredeiarekin (cita previa), pertsona ez da zenbaki bat.



Markina bidean z/g
ERMUA (BIZKAIA)

Tlfn: 943-170700-04
170597

FAX 172267

- Berugailu eta osasunerako ur beroa.
- Sukaldeak; ikatza, egurra, berogailua+acs.
- Beheko-suak,txininiak.
- Berogailu-galdarak; gas-oil, gasa, electrikoak.
- Termoak, ur berogailuak, radiadoreak.

CALCUL

MECANO

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria

telf 70-07-50 / 70-11-95

EIBAR (Gipuzkoa)

ERREKARA BOTATZEN DENA BILDUGARRIA BENETAN (fabrikek jaurtitzen dutena dela eta)

Ego ibaia, empresa batzuk bertara botatzen dituzten produktu batzuk akabatu dute, eta hori dela eta, fabrikok jaurtitzen dutena kontratatzeke plan bat asmatu zen.

Hasteko, Eibarren bakarrik eramango da kontrol hori, izan ere, bertako Udaletxeko Ingurugiro Batzordeak asmatu bait du, nahiz eta eskualde honetako beste udalerrri batzutan ere gauza berbera egin daitekeen.

Planari hasera eman genionean, 75 enpresa aztertu ziren, eta enpresa horietan lharduera Desosantsuen Araudiak (1961eko Legea) ematen dituen aginduetara moldatuta dauden ezerketa edota instalazioen azterketa edota estudio txiki bat egin zen, instalazioak nola zeuzkaten ikusi ahal izateko. 75 lantegi horietatik, 2 aukeratu ziren, erreka, erreten edo ibaietara botatzen den kutsadura edo kontaminazioa sortarazten duten produktuen analisia egin ahal izateko.

Analizatu zena, metalei gainean ematen zaien bairuak izan zen, gure ustez, kutsadurarik handiena horrelakoek sortzen bait dute. Baina esan behar dugu baita, neurtu genuena, industriek sortzen duten kutsaduraren zati txiki bat besterik ez dela.

Kutsadura neurria handitzen duten beste produktu batzuk haue-

kek dira: hidrokarburuak, olioak eta koipeak, detergenteak...

Hala eta guztiz garbi utzi behar duguna zera da: neurtu dugunaren apurrarekin analisek eman dituzten ondorio edo erresultatuak ez dirala goitik—beherakoak enpresa bakoitzean behar besteko neurketa ez dugulako egin, baina hori horrela bada ere, neurtu dugun kutsadura apur horrek beste urte batean jarraitzen badu oraingo martxan, gure egoera honako hau izango litzatekeela:

Egoera penagarria da, ikusten den moduan, eta egia da, zifra horiek aldaketak izan ditzakete neurketa sakonagoa egiten badugu, baina aldaketarik balego ere, sekula ere ez zen izango zifra horiek gutxitzeko baizik eta gorago iriste-

ko. Ingurugiro Batzordeak azterketak edota analisiak egiten jarraitzeko asmoa du datu fidagarriagoak lortu ahal izateko, eta hori egin ondoren, enpresei zer-nolako kutsadura eta zenbatekoa duten azaldu, beren sintoma depuratzaileak egoki ditzaten.

Azkenik hauxe esan behar dut: Eibarko enpresa-gizonek plan hau interes handiarekin hartu dutela eta bestalde, erraztasun guztiak eskaini izan dizkigutela behar genuen guztia edukitzeko.

Ramon Telleria
Ingurugiro teknikaria

Material-mota	Kalifikazioa	Zenbat jaurtitzen den	Legeak uzten duen gehiengoa
Cr VI Kromo exabalentea	toxizitate ikaragarrikoa	18.480 k/urtean	150 k/urteko
Cn Zianuroa	toxizitate ikaragarrikoa	25.960 k/urtean	120 K/urteko
Ni Nikela	toxikoa	1906 k/urtean	375 K/urteko
FE Burdina	kaltegarria	2840 k/urtean	750 K/urteko

IRAKURLEAREN TXOKOA

EUSKADI EZKERRAREN ZIKINKERIA

Argi eta garbi ikusten da Euskadiko Ezkerrak Udaletxea eta lan publikoa kargu eta botere banaketa soil bat bezala ulertzen dutela, eta horregatik uste dute Ingurugiro Saila HBrena dela. Zera argitu nahi diogu Jon Garaizabali: Ingurugiroko Udal Batzorde zabal bat dela talde politiko guztiei irekia, naiz eta EEko ordezkariak inoiz etorri ez.

EEri esan behar diogu, Eibar honetan zikinkeri mota asko daudela, eta gure propaganda ez dela herria gehien zikintzen duena. Baina noski, Jon Garaizabali ez zaizko kartel edo pankartak axola, kartel eta pankarten esanahia baizik, eta bertan jartzen denak asko zirikatzen du, dirudenez. Eta hau argi ikusiko da hauteskunde kanpaina honetan. Komeni zainean herri guztia kartelez eta pankartaz josteko lotsa txikien ere ez dute izango. Edo EEkoen kartel eta pankartak ez dute zikintzen?

EEko damutuek, sistema kapitalista eta konstituzioaren defendatzaile onenarikoetan bihurtu ondoren, ia komunikabide guztien bedekinkazioak dituzte eta TVE-en edo El País-en eguneroko agertzen dira. Beste batzuek sistema honen aurka damutu gabe jarraitzeagatik, komunikabide hauen boikota sufritzen dugu, eta legez gurea dena ere ez digute ematen. Horregatik jo behar dugu gure iritzia hormetan ipintzera.

Lerro hauekin amaitutzat ematen dugu gure arteko polemikaxo hau era honetako jardunak ez «...eta Kitto»ri ez euskarari inongo mesederik ez diolako egiten. Horretarako hor ditugu eguneroko komunikabideok, plataforma hau bestelakoetarako lagaz.

Eibarko HERRI BATASUNA

TUMATXA, HI!

Agur t'ardi:

...eta kitto! hau egiten duzuenoi osasuna eta askatasuna opa dizuet eta saia zaitezte hartu duzuen ardura orain arte bezain ongi betetzen. Zorionak! Esana bego dagoenean, ongi baitago, baina, eskaeraxo (?) bat luzatu nahi dizuet: neure iritzirako 4 orrialde ez da nahiko zenbaitek daukagun egarria asetzeko. Beraz, eta gehiegi ez bada behintzat, bikoiztea edo doblatzeaz pentsa dezazuen gonbidatzen zaituztet.

Besterik ez bada, txalo bero bat eta eutsi timoiari.

OIZPEKOA

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno, hori ala bada eta AYERBE LIBURUDENDAK oparitu-ko dituen liburuak irabazi nahi badituzu bidal ezazu esku-titz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara hilaren 15a baino lehen, zeure datuak eta telefonoa eman ez!

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«...eta kitto!» Sariketa

5. aldeko sariketaren erantzuna «Sakun parkean, Instituto atzean da». Oraingoan ez da esku-titz gehiegirik etorri, 17 bakarrik, zaila izan da ala? Irabazlea Aitor Leyaristi Odriozola, Fermin Kalbeton Kanean bizi dena izan da.



DISKA
SALDUENAK
Apirila-Maiatzean

EUSKARAZ

M-AK. «Barkatu ama»
EGAN. «Egan»
MIKEL LABOA. «Lekeitoak»
IMANOL. «Muga beroetan»

ERDARAZ

BARRICADA. «Pasión por el ruido»
THE CURE. «Disintegración»
SIMPLE MINDS. «Street lighting years»
MADONA. «Like a Prayer»



KONTXA LASPIUR:

Eibarren alde, euskeraren alde,
gure nortasunaren alde

Ni jaiotzez Bergarakua naiz, 4 urtekin ekarri ninduten Eibarrera baiña ni neu eibartar sentitzen naiz eta oso gustora gainera; ez neuke Eibar kanbixatuko beste herri bategaittik.

Euskera erakusten hasi ta 25 urtian horretan dihardu

«Ba ni... niri deitxu estan, nola da ha haura?... Zubiaurrek, esanez ba bueno ba... euskerazko klaseak eman behar neukezela, jente gitxi zeuala euskeraz zekixana ta ba... horrelan hasi nintzan, ta orduan giñan ba... ez ta-kitx: Zabaleta, ta Amatiño ta... lau-bost bat giñan.

Ta berrogetabat lagunekin hasi nintzan. Egun baten etortzen ziranak hurrengoan ez ziran etortzen, bataz beste hamalau—hamabost bat eukitzen nittuan egunian. Baina neuken mutil bat oso zintzua, naparra zan, Jose Antonio... apellirua ez jata gogoratzan, ez takitt, ta euskeraz oso ondo ikasi zeban, arrezkero pasau dira pillu bat urte.

Hogeitabost urte daroataz emoten, ta emon dot: Deportibuan, La Salle beian, La Salle goian, Ikastolan, Udaletxean, ta gero ba... A.E.K. sortu zanetik ba... A.E.K.-n ta oso gustora, lastimia ez gaittuela jendiak... jendiak bai! Baina bueno... agintariak ez gaittuela onartzen, hori da penagarria, ezta?

Euskera batu zenean: euskera batua

«Hasi nintzanian ondiokan ez zeuan euskera baturik. Ni hasi nintzan Patxi Altunaren liburua-kin, orduan zan ba: —ikus det, esan det— eta bueno... pixkat Donostiako estilora, ba... nik esango neukena ba... eibartarra baiña pixkat puliduta edo... holan izango litzake. Gero bai, gero euskera batua hasi zanian bai, tituloa atera neban, euskera batua ta... gero hasi giñan euskera batua erakusten. Liburu pillu batekin».

Jentiaren euskerarenganako interesa: tituluaren billa

«Nik uste dot jentia gehien bat tituluagaittik dabillega, tituluaren billa dabillega jentia; ze hamen asko ta asko dabilta ta euskera, politxo!!, ondo!! ondo ikasi dabe; baiña hamendik urtetzen diranian... neuk somatu dittut erderaz kalian erderaz, dihardutela ta... galdetu zegaittik egiten de-

ben erderaz ta... euren erantzuna izaten da: —ohitura daukagu ta... lagunekin ta ohitura daukagu ta...— bueno ba, lelengo egizue euskeraz ta ez badakite orduantxe ein bestera; jo!!, baiña lagunak euskaldunak badira, nik uste dot ba... normala dala euskeraz egitea euskaldunen artian.

Lelengo geuria da: euskera ta euskaldun nortasuna

«Euskera ez da politika askok pentsatzen daben moduan, etnia baten hizkuntza da, geure hizkuntza da. Lelengo ba bueno... aman magalean ikasi doguna, ezta?: euskera behintzak lelengo.

Hamen (AEK-n) erakusteko zera asko gustatzen jata: ze ez da euskera erakustea bakarrik: ohiturak, Euskal Herria zer dan, zer izan dan ta zer izan nahiko genduken, ze guk nahiko genduke Euskal Herria euskalduna izatia, «lelengo geuria da, ta gero bestiak». Nahi dabenak ikasteko aukera daka, horretarako euskaldun sentidu ein bihar da!!; ta gauza bat esango deusuet: euskera galdu dan lekuan nortasuna be galdu egin da».

Eibar euskalduna da

«Euskaltegian asko ta asko ikasi dabela somatzen dot. Nereki alkartzen diranian euskeraz egiten dabe baiña euren artian ez dabe

- «**Hasieran Zabaleta, Amatiño ta... lau-bost giñan**»
- «**Euskera ez da politika askok pentsatzen daben moduan**»
- «**Ez dakit zegaittik Gobiernuak laga gaittuen umezurtz**»
- «**Eibar euskaldunduta hil nahi neuke**»

egiten ze... euskeraz egingo bage-nu... Eibar euskalduna da!!; bai, bai, Eibar euskalduna da; ta pillu bat dare titulua hartu dabenak, baiña lastimia da ze... neuk somatu izan dot neure ikaslietan; ni euren atzetik ta... eldu ondora ta... ño! zelako erdera batua daroazen, eh?... ta orduan euskeraz hasi, ta zegaittik ez euskeraz le-lengotik?»



Datorren hilabetean, Ekainaren 16an, omenaldia jasoko dau Kontxak, Udalak, Deportiboak, A.E.K.k... eskeñitakoa ta merezia. Zorionak Kontxa ta urte askotarako!!!

Euskera batua badogu, euskal-tegiak ostera banatuak

«Euskaltegi bietan, bai A.E.K.-n bai H.A.B.E.-n irakaskuntza berdintsua da baina A.E.K.-koan laguntza bapez da. Ez dakit oin zegaittik gobiernuak laga gaittuen umezurtz, ze... euskeria geuk atara dogu. Nik ez dakit gobiernuak hori diskriminaziuori zegaittik egin daben, nik ezin dot onartu.

Gure helburua euskera aurrera ateratzea da. Euskalduntzeko lan asko daukagu; baina benetan esaten deusuet eh?... A.E.K. desgertzen bada ea da euskaldunduko. Alaitasun gehiago ikusten dot nik euskaltegi honetan bestian baino».

Toki guztietan «euskera beharrezkoa» da euskaldunontzat

«Gobiernuak ez dau exigitzen euskera. Derrigorrez exigidu ezkerero jende gehixao etorriko zan euskera ikastera. Baina oiñ ez, oiñ nahi dabenak ikasi ta... holan dao gauzia. Zentru ofizialetan danak jakin behardabe eta euskeraz Euskal Herri batean, ze neri pasau jata hertzain bati galdetu euskeraz eta ezin erantzun izatea euskerarik ez zekixalako; ta hori..., gobiernuan errua da; eztao zerik, gobiernuan errua da hori».

Beraz, badakigu zer egin bihar dogun; euskaldunok euskeraz, euskeria galtzia nahi badau batenbateg Kontxak diñon moduan: «kostatuko jakue kostatuko jakue». Bere bizi guztia euskera erakusten emon dau ta nahirik handiena zera litzateke: «Eibar euskaldunduta hil nahi neuke».

«Nik uste dot jentia gehien bat tituluagaittik dabillega, tituluaren billa. Ze hamen ondo! baiña hamendik urtetzen diranian...»

Comercial ETESA

BULEGO-MATERIALA-ALTZARIAK
BIDEBARRIETA, 66
TELEFONO 121973-74
20600 EIBAR GIPUZKOA

GURBIL

Pizzeria Jentia
isasi kalea-1
eibar 11-111152

**GRABADOS
ESKULAN**

Aldatze 4 behea
Tfno (943) 713103
20600 EIBAR

**pintxo
bar**
San Juan 3 - Telf 700899

**GURE
LEKU**

PINTXO GOZOAK ETA KAFE
EZIN HOBEA
ISASI-3 TFNO. 11-71-89

ARRAGUETA

OKINDEGIA

OGI BIKAINA

Arraqueta kalean
Telf: 12.06.96



SAN JUANAK:

FESTAZ ETA PARRANDAZ BETERIKO EGUNAK



Eibar egun hauetan giro espezial batez inguratzen da: egun alai eta argitsu hauetan barrakak montatzen hasten dira, Toribio Etxeberria kalean bitxikerien postuak, jendea dotore jartzen da, «lige» berriari buruz plan bat prestatzen, gaupasa egunak kontatzen hasten,... Beraz, SAN JUANAK badatoz. Jendeak begi honez ikusten ditu jaiak generalki, atsegin ditu, gainera batzutan beharrezkoak dira noizean behin gorputzeko «stress»-a erre ahal izateko.

Eibarren ospatutako jai guztietatik, badira batzuk atseginoak beste batzuk baino. Askorentzat Aratusteak giro hobea dute, edo San Andres-ak herrikoia direla San Juanak baino. Batzuentzat San Juanak Eibartik aldegitoko arrazoi hutsa dira, jende larregi egoten dela argumentatuz. Aurten txarrena da San Juanetan langileek ez dutela jairik, 24-a larunbata tokatzen da eta. Beraz kanpora doazenek aste-buruko bi egun arruntak disfrutatu ahal izango dute soilik.

Batzuk jaiak «a tope» disfrutatzea espero duten bitartean, badaude beste batzuk jaien beste ikuspegi desberdin bat dutenak, ilusioa pixka bat galdurik dutenak, adibidez San Andres erresidentziako jubilatuek. Monja Nagusiak esan digunez «ahalik eta hobekien pasatzea espero dugu, badaude ekintza batzuk antolaturik, eta San Juan egunean meza izango dugu; garrantzitsuena ilusioa mantentzea da».

Juan Mari Lejardi «Pastor», San Juanekin behar beharrez erlazioa-

tzen dugun pertsonaiak, begi onez ikusten ditu aurtengo jaiak, «aste-buruan izanik kanpotar jende asko etorriko da, beraz ambiente ona izango dugu. Hala ere, nire ustez karnabalak indar gehiago dute, zeren jendeak martxa guztia egun batetarako gordetzen du. San Juanek, aldiz, egun gehiago irauten dute eta jendeak azkenengo egunetan ez du poltsikoan diru larregirik ezta gorputza tratatu hoietarako prestatu-rik».

Aurtengo programaketak denetarik du: kontzertuak, kalejirak, zine erotikoa, urteroko gaupasak (hiru guztira), bertsolariak,.. eta abar luze bat, ILLA-k, udaletxeko kultur departamentuakontatu digun bezalaxe. «Alde batetik ekintza tipikoak izango ditugu: tanborradak, dultzaineroak,.. eta berritasun bezala kuadrilak, ihaz hasitakoak. Urtero jaien kalitatea hobetzea da gure proposamena, kaleko teatroa edo umeen ekintzak izanez, adibidez».

«Aspalditik honera San Juanen esentzia ez da asko aldatu —dio Antxon Narbaizak, aspaldiko gauzei buruz dakien eibartarrak baina lehen ambientea guztiz desberdina zen, Eibarren denok ezagutzen ginenez. Jendeak gogo gehiagorekin itxaroten zituen jaiak, orain baino, gutxiago egoten ziren eta Aratusteak ere oso famatuak ziren, kasinoetan jaiak ospatzen ziren kalean ibili beharrean».

ZELAN IKUSTEN DITUZU EIBARKO JAIKAK
ETA BATEZ ERE SAN JUANAK?
ZER EGITEN DUZU?



KOLDO JAUREGUI, 32 urte, langilea

San Juanak herri-festak dira, baina garrantzia galtzen doaz. Festa klasi-koak dira, hemen garai batean balio handikoak eta orain aratusteak kendu dizkiote lekua. Oraindik badute indarra, gehien bat juerga egiteko eta umearen ilusioa berpizteko (danborrada..).



ANA MARIA FERNANDEZ, 41 urte, etxeko andrea

Lehen Eibartik kanpora joaten ginenez, baina orain ez. Nere alabak 16 urte ditu eta San Juanetan gelditzea nahi du. Egunez hondartzara joaten gara eta gauz lagunekin irtetzen naiz kafetxo bat hartzera.



TXARO BAGLIETO, 25 urte, euskaltegiko ikaslea.

Pentsatzen dut ongi egoten direla, baina azken bolada honetan nahiko makal. Arrazoiak ez dakit, baina izan daiteke jendea jaietaz ere aspertuta egotea. Udaletxearen antolakuntza ez da oso ona.




ANABEL, 15 urte, ikaslea

San Juanak oso ongi daude eta programak ere nahiko ongi egoten dira, nahiz eta beti zerbait falta. Gaupasak hobeto antolatu behar dira, zeren jendeak ongi pasatzea eta kalean denbora gehiago egotea nahi du.




ASIER GARATE, 15 urte, ikaslea

San Juanetan lagunekin arratsal- dean kalera irtetzen naiz eta etxean afaldu ondoren, berriro kalera, berbe- nara. Batzutan alkateak ez dituzte gazteak nahi ditugun ekintzak antolatzen. Hala ere, merezi du Eibarren geldit- ztea.



EUGENIO, 14 urte, ikaslea

San Juanak jai onak dira. Kalean oso ongi pasatzen dugu, batez ere buru-handiekin.



OSKAR SAEZ, 21 urte, ikaslea

Nahiko giro ona egoten da. Baina kanpotar larregi etortzen dira, kanpo- tarrak kenduko nituzke. Guk betikoa egiten dugu.



AGENDA

Ekaina

• KIROL ARLOA

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK antolatua:
11an: San Juan Sari Nagusia (Gazteak)
14tik 18ra: ARRATE IGOERA-EIBARKO BIZI- KLETA

10an: MENDI IBILALDIA, Azpiroz — Lizarrusti Mendatean. C. DEPORTIBOKO MENDIZALE TALDEAK antolatuta.

• ARGAZKI SARIA ERAKUSKETA

Club Deportivo Udaleko Kultura Batzordearen laguntzaz deituriko SAN JUAN ARGAZKI LEHIAKETA n parte hartzeko epea, Ekainaren 16an bukatzen da, erabaki jendearen aurrean 17an hartuko delarik.

18tik 30era: ERAKUSKETA. Lankide Aurrezki Kutxak duen Aretoan parte hartu dutenen lanak izango dira.

• ZINE EROTIKOA:

Eibarko ZINE-KLUB, EGO-EIBARrek, Kultura Sailaren Laguntzaz pelikula hauek aurkeztuko dituzte.

— BODY DOUBLE (USA 1984) Zuz. Brian de Palma
IL DIABOLO IN CORPO (Italia-Francia 1985). Zuz.

Marco Bellochio
— LA CHIAVE (Italia 1983) Zuz.: Tinto Brass

14-15-16an: RIALTO ZINEMAN, Arratsaldeko 7,30etan

• SAN ANDRES EGOITZAN NAGUSIENTZAKO EKINTZAK

5-9 / 12-16an: Bingo, dute
7an: Balleta
14an: Pelikula
19an: Txokolatada eta dantzaldia musika taldeekin
21an: Txapelketa bat, bi, hiru
22an: Eibartar Dantzak
23an: Mus eta landareen txapelketa «SAN JUAN SALBEA» Eibarko Parrokiako koruaren eskutik

• XXIV. EUSKAL JAIA

5an: Arratsaldeko 7etan, Lan Kide Aurrezkiaren aretoan, EUSKAL HERRIKO JANTZIARI erakusketaren inaugurazioa, 17rte zabalik iraungo duelarik.
6an: Arrats. 7.30etan JUAN ANTONIO URBELTZ-ek Euskal Folkloreari buruzko hitzaldia eskainiko du, Lan Kide Aurrezkiaren aretoan.

7an: Arrats. 7.30etan, Untzaga zineman ANDER ETA YUL filmea.

10an: Arrats. 7etan Umeen Jaialdia JAIONE, PERNANDO eta euren pailasoak, Untzagan

11an: DANTZARI EGUNA
— Goizeko 12etan, kalejira KEZKAKo lokaletik Untzagaraino
— Eguerdiko 12,30etan Untzagan, dantza saioa
— Arrats. 5etan, dantza solte txapelketa Untzagan, 14 urtez azpiko bikotearentzat.

SAN JUANAK 89

4an: Txakur Lehiaketa
10an: Legazpiko Korua
13an: Chinako Orkestra
17-18-23-24- eta 25an: Egun hauetarako ekintza ugari antolatu ditu Udaleko Kultura Batzordeak; Gaittiberak, Kirolak, Moda desfilea, Zezenak, haurrentzako ekintzak, teatroa (VOL-RAS), Berbena KORROSKADA eta TIJUANA IN BLUE, Suak, txistulari eta dultzaineroak eta abar luze, luze bat.
20an: Dibujo Eskolako lanen erakusketak
22an: Sostoa korua
30an: Pelota 0 Haurrentzako jokoak, Berbena CAMP

NORK ZER

• **Koordinatzailea:**
Fernando Muniozguren
• **Erredakzio-taldea**

Ana Aizpurua
Idoia Arrillaga
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren

• **Argazkilariak**

Mikel Gorosabel
José Valderrey

• **Maketazioa**

José Valderrey

• **Komikia**

Ander Gisasola

• **Marrazkiak**

Leire Astigarraga

• **Inprimaketa**

Antza